



euskal herriak
bere eskola

www.euskaleskola.org



Sasi guztien gainetik...



Hauteskundeetako emaitzak



Ikasle Abertzaleak Italian

hezberrri

38.alea
2011ko
Urtarrila eta
Otsaila



“Hik bultza gogor hortikan, ta bultza nik hemendikan!”

Otsailaren 5ean Bilboko La Bolsa eraikinean elkartu ginen Hezkuntza Mugimenduan lanean dihardugun hainbat lagun. Azken ikasturtean zehar hausnarketa batean murgildurik egon gara Hezkuntza Mugimenduko kideak eta Batzar Irekian hortik ateratako ondorioak herritarrekin konpartitu genituen.

Hezkuntza Sistema Nazionalaren alde lanean ari garen eragile eta norbanakoak asko gara Euskal Herri osoan. Bakoitzak bere herrian, bakoitzak

bere erara, hezkuntza euskaldun eta herritarra aldarrikatu eta eraikitzen dugu. Ezberdintzen gaituzten elementuak ahaztuz, helburu amankomunen alde elkartuz indartsuagoak izango gara.

“Hik bultza gogor hortikan, ta bultza nik hemendikan!” halaxe esaten genuen Batzar Irekirako deialdian. Horixe baita gakoa, bakoitzak bere eremuan eragitea; urrats txikiak emanez egingo dugu aurrera Hezkuntza Sistema Nazionala, euskaldun eta herritarra lortzeraino.



Batzar Irekia: Ondorioak

Batzar Irekian egin genituen ariketetan partehartzaileek egindako ekarpenak bildu eta laburtu ditugu. Batzar osoan esandakoak kontutan hartuz, hauek dira atera ditugun ondorio nagusiak; etorkizunera begira hartzen ditugun konpromiso hauetan laburtu daitezke:

1

Hezkuntza Mugimendua herriz herri eta ikastetxez ikastetxe berpizteko konpromisoa hartu genuen, hau berau erreferente aktibo bilakatuz. HSNren aldeko hezkuntza mugimendua Euskal Herrian irekitzen ari den egoera berrian eragiteko prestatu beharra dago. Horretarako, eragile izaera alboratu eta herri mugimendu izaeran sakontzea dagokigu.

2

Gida praktikoa sortzeko konpromisoa: Herriz herri, ikastetxez ikastetxe zein kanpusetan ildo propioak aktibatzen laguntzeko esperientzia eta tresnen multzoak osatuko du Gida Praktikoak.

- Eragileek, elkarteek... dituzten baliabideak biltzeko gune ere izan nahi du. Egun eskaintzen dituzten ikastaroak, martxan jarri dituzten esperientzia pilotuak, jolasak... guztiak Hezkuntza herritar eta euskaldun baten bidean eraikiak izan direla eta euskaldunon hezkuntza eskubiak oinarrian izango dituztela kontuan hartuta.
- Tresna honen ezaugarriarik garrantzitsuena, bere dinamikotasuna izango da. Izan ere, gida hau ez da eraginkorra izango egun dauden esperientziak biltzeaz gain, esperientzia berriak biltzen ez baditugu. Beraz, beharrezkoa izango da herri, auzo edota ikastetxeetan burutzen ditugun esperientzia ezberdinak biltzeko elkarlana sustatzea.

3

Nazio Mailan, Hezkuntza Sistema euskaldun eta herritar baten aldeko elkarlana sustatzeko konpromisoa.



Batzar Irekia: Elkarrizketa

Batzar Irekiaren zurrumbiloa pasatu ostean, ondorio eta konpromisoak atera direnean, aurrera begira jartzeko unea iristen da. Hausnarketa prozesu osoa igaro ondoren, Batzar Irekiarekin honi amaiera emanik, Ainhoa Larrabe EHBeko kideari elkarrizketatxo bat egin nahi izan diogu prozesu guzti horren bere ikuspuntua jasotzeko.

Ze helbururekin ospatu zenuten Otsailaren 5eko Batzar Irekia?

Azken urte eta erdian hausnarketa bat burutu dugu hezkuntza eragile eta norbanako ezberdinok. Batzar Irekian, hausnarketa hori herri-tarrekin konpartitu, ekarpenak jaso eta adostea izan da gure xedea.

Zeintzuk izan dira hausnarketa horren edukiak?

Hezkuntza Mugimenduan izan den ibilbidea baloratu eta aurrera begirako pausuen inguruan aritu gara. 2002an Euskal Herriak Bere Eskola sortu zenean, Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko mugimendu gisa definitu zen. Faktore ezberdinengatik, azken urteotan, eragile kut-sua hartu izan dugu. Sorrera agiriko funtzioak hartzea izan da hausnarketa horren ondorio nagusia. Herriz herri eta ikastetxez ikastetxe sustraituko den hezkuntza mugimendua sendotzea beharrezkoa da, elkarlanean.

Zeintzuk liratezke, bada, hezkuntza mugimenduaren funtzioak?

Euskal Herriak Bere Eskolak Hezkuntza eredu propio baten aldeko Herri Mugimendua sustatu nahi du, herri bakoitzak dituen hezkuntza

beharrak jorratu nahi ditugu, herri bakoitzean lanean ari diren sektoreen arteko elkarlana sustatuz zein hezkuntza proiektu euskaldunak eta herritarrak bultzatuz. Txikitasunetik handitasunera, gauzak aldatzea posiblea da.

Nola baloratzen duzue Batzar Irekia?

Kuantitatiboki ezin dugu balorazio positiboegia egin. Baina kualitatiboki balorazio ona egiten dugu. Kontseilua, Hik Hasi eta Bilgune Feministaren asistentziak asko aberastu zuten Batzar Irekia. Hausnarketa konpartitzea eta praktika klabeetan kokatzea lortu genuen. Orain, hausnarketa eta horren filosofia zabaltzea dagokigu.

Aurrera begira, zer?

Hiru konpromiso hartu ditu bere gain Euskal Herriak Bere Eskolak. Batetik, sorrera agiriko funtzioak behartzea, herriz herri eta ikastetxez ikastetxe hezkuntza mugimendua bultzatuz. Bestetik, ildo propioak aktibatzen laguntzeko, esperientziez osatutako Gida Praktikoa sortzeko konpromisoa hartu dugu. Eta azkenik, Nazio Mailan, Hezkuntza Sistema euskaldun eta herritar baten alde sustatzea da gure asmoa.

Batzar Irekiari buruz webgunean publikatu ditugun berriak:

<http://bit.ly/e5Ob8Y> - <http://bit.ly/hfXI3S>
<http://bit.ly/gUQ8gj>



Milaka euskalzale “Sasi guztien gainerik, euskaldun eta burujabe” manifestazioan



Manifestazioaren amaieran Txillardegiri omenaldi sentikorra burutu zioten EHEko kideek. Talde honen sortzaileetarik bat, euskalgintzako militante garrantzitsu eta erreferente ukaezina da Txillardegi; horregatik egindako lan guztiagatik esker ona erakutsi nahi izan zioten.

“Sasi guztien gainerik euskaldun eta burujabe” leloa zuen pankarta hartuta 4000 lagun inguru izan ginen Donostiako kaleetan barrena ibili ginenak pasa den Otsailaren 12an. Manifestazioaren aurretik gogor aritu ziren lanean Euskal Herrian Euskarazeko lagunak, manifestu bat kale-ratu zuten eta herritar ugariaren atxikimendua jaso zuten. Euskal Herriak Bere Eskolako kideok ere izan ginen Donostian; hezkuntzak ere izan behar duelako euskaldun, euskaldun hizkuntzaz eta euskaldun edukiz; eta horretarako burujabetza ezinbestekoa zaigulako.

EHEren hurrengo deialdia Gernikan ospatuko den Euskaraz Bizi Egunera joateko da. Martxoaren 19an ospatuko da urteroko zita hau; beste behin ere aldarrikapena eta jaia uztartzeko aukera bikaina!

Celaaren hezkuntza politika izan da EAEko Hezkuntza publikoko hauteskundeetako galtzaile nagusia



rekin batera hauteskunde hauetan aipagarrien izan dena. Emaidza hauek beste behin ere argi uzten dute Hezkuntza Saila aurrera eramaten ari den neurriek ez dutela inolako babesik hezkuntza komunitatearen aldetik. CCOOek berak onartu du Celaarekin itunak sinatu izanak kaltetu duela eta horren inguruan hausnartu beharko duela.

Hauteskunde sindikalak izan ditugu Otsailean EAEko Hezkuntza sistema publikoko ikastetxeetan. Emaidzek ozen hitz egin dute eta garbi adierazi dute gauza bat, Hezkuntza Sailak azken aldi hartu dituen erabakiek ez dutela inolako babesik hezkuntza komunitatean.


LAB eta EILAS izan dira gorakada nabarmenena izan duten sindikatuak; igoera hori da CCOOren beherakada-

Celaák orde ez du errealitate hau onartzen, proiektu hauek aurrera ateratzeko irakasleen gehiengoaren babes duela esan du azken adierazpenetan, eta “inoren” inposiziorik ez duela onartuko esan du. Hauteskundeetan gehiengoa lortzea, antza, inposizioa da orain...

Ikasle Abertzaleakeko kideak Italian izan dira, ikasle borroka esperientziak konpartitzen

Bolognaren aurkako borroka bizirik dago Europan zehar; Ingalaterran, Italian... hamaika borroka ikus ahal izan ditugu azken hilabeteetan. Ikasle Abertzaleakeko kideak Italian izan dira hango esperientzien berri izateko eta hemengoak konpartitzeko. Gauza asko ikus ahal izan dute egun hauetan zehar; besteak beste, Bolognak merkantilizazioaren alorrean ekarriko lituzkeen erasoak Italian jadanik errealitate dira konprobatu dute.

Baina baieztapen horien ondorioz etsipenak jota itzuli beharrean, indarberrituta egin dute etxerako buelta. Borrokarako arrazoiak inoiz baino modu errealagoan ikusi dituzte, eta Euskal Herrian oraindik horiei aurre egiteko garaiz gaudela azpimarratu dute. Hemendik aurrera, beraz, han ikusitakotik ikasi eta Euskal Herrian lanean jarraituko dute Ikasle Abertzaleakeko lagunek; bestelako unibertsitate eredu baten alde!



Martxoan zehar Hezkidetza tailerrak ikastetxe eta unibertsitateetan

Bestelako gizarte bat eraikitzeko bestelako hezkuntza ezinbestekoa da. Gizon eta emakumeen arteko bereizketa nabarmena da egungo eremuan, eta rol banaketa horiek mantendu eta birproduzitzeko hezkuntzak paper garrantzitsua jokatzen du.

Ikasle Abertzaleak ez dago ados gaur egungo hezkuntza sisteman ematen den rol bereizketa horrekin. Genero eta aukera sexual eta abarretatik eratorritako bereizketak gainditu eta pertsonak hezten dituen eskola dute helburu; eta bide horretan gardanik eragiteko asmotan dira. Horretarako Martxoan zehar hezkidetza tailerrak garrantuko dituzte Euskal Herriko ikastetxe eta unibertsitateetan.



"Gose denari arrain bat emanaz gero egun batean jango du, arrantzan irakatsi eta egunero jango du"

Hezberri Euskal Herriak Bere Eskolaren hilabete-karia da. Bertan dauden eduki guztiak edo atalak libreki partekatu eta zabaltzeko eskubidea duzu beti ere honako baldintzak betetzen badituzu:

- Jatorria aipatzea
- Era berdinean partekatzea

CC
SOME RIGHTS RESERVED



Informazio gehiago:

- www.euskaleskola.org
- eskola@euskaleskola.org